



UDALBIDE
Elkarlan
Elkartea

EGITASMO NAGUSIA





EGITASMO NAGUSIA

UDALBIDE Elkarlan Elkartek europar intereseko Federazioa izan nahi du. Elkartek corpus ideologiko bat landuko du nazioen eta erkidego naturalen indarrean oinarrituriko Europa sortzeko. Elkartek, bestalde, bere proiektuak bideratuko ditu kultura, hizkuntza eta euskal nortasuna bere lurralde guztietan indartuko dituzten kontu guztiak sustatzera.

Euskal Herria, Euskadi, le Pays Basque, Pais Vasco: Europako herria

1992an, Maastrichten, Europako Batasuneko Ituna sinatu zuten agintariek esan zuten "Europako herrien arteko gero eta batasun handiagoa" sustatuko zutela. Azken batean, herrien Europa eraikitzea, hots, kulturaren bidez ere eraikitzen den Europa.

Europako Batasunak erronka handiei heldu die, esaterako, kide gehiago sartu dira eta Konstituzio Itun berria onetsi dute. Beraz, elkarrizketan, dibertsitatean eta aniztasunean oinarrituriko kultura politikoaren alde lan egin beharra dago. Herriak eta herritarrak eraikuntzaren erdigunean jarriko dituen Europaren alde lan egin nahi dugu, bai eta bere baitako nazioen estatus politikoa aintzat hartuko duen Europaren alde ere.

Europa batuko bada, bere baitako herrien eta kulturen errespetuan oinarritu behar du, bai eta haien egituraketan ere. Eta, hain zuzen ere, hortik heldu da gure nazioei eta erakundeei Europan eta nazioartean lekua eta proiektzioa bermatzeko beharra.

UDALBIDE Elkarlan Elkartea: gizartearekin bat eginik

2001eko uztailan, Batzordeak bere egin zuen Europako Gobernantzari buruzko Liburu Zuriak ekarritako funtsezko mezuetako bat. Hona hemen: Europako elkarteak gizarte europarraren oinarrietako bat dira eta erabat lagungarri gertatzen dira Europako herritartasunaren ideari zentzua eta esanahia emateko. Maiz, ordezkatzan dituzten taldeen ahotsa dira eta, horregatik, lotura naturala dira herritarren eta botere publikoen artean.



UDALBIDE
Elkarlan
Elkartea

Elkartek funtsezko eginkizun demokratikoa betetzen dute gizartean. Hurbiltasunaren printzipioak dioena betetzeko, herritarrekin zuzeneko harremanetan dauden ordezkari sozial horietan bermatzen da Europako Batzordea, Europako integrazioari buruzko gogoeta eta argibide ekintzak sustatzeko, betiere herritartasun eraginkorra lortzeko asmoz. Batzordeak delako elkarte eta erakundeak animatzen ditu argibide proiektuak aurkez ditzaten eta, horri begira, diru laguntza eskaintzen die. **UDALBIDE Elkarlan Elkarteak** lekuko hori hartu nahi du 2005ean.

UDALBIDE Elkarlan Elkartea: Europar interesa duen elkartea

Europako Batasuneko Ekonomia eta Gizarte Batzordeak 1998ko urtarrilaren 28an emaniko irizpenean dio elkartek garrantzi handia dutela demokrazia zaintzeko. Elkartek gizabanakoei aukera ematen diete beren iritzia lantzeko, beren ideiak lortzen saiatzeko, zeregin erabilgarriak betetzeko, gizartean duten lekua aurkitzeko, beren ahotsa entzunarazteko, nola edo hala eragiteko, bai eta aldaketak sortzeko ere.



Elkarren arteko antolaketaren bidez, herritarrek bitarteko eraginkorrakoak izaten dituzte eskura, gizartean dauden arazoez dituzten iritzia agintarienganaino helarazteko.

Gizartearen egitura demokratikoak indartuz gero, indartu egiten da herritarren Europa kontzeptua, bai eta edukiz bete ere.

Alde horretatik, elkarte-eskubidea arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoak aurreko hori hitzez hitz biltzeaz gain, hauxe ere badio: Gizartearen egitura demokratikoak indartzeak erakunde demokratiko guztiak indartzen ditu eta, halaber, kultura aniztasuna gordetzen laguntzen du.

Gizartean txertatzeko eta kontu publikoetan parte hartzeko lanabesa da Elkartegintza.

Agerikoa da elkartek funtsezko eginkizuna betetzen dutela gizartearen hainbat esparrutan. Era berean, elkartek herritarren ekimena sustatu egiten dute eta erroto demokrazia aurreratua, herritarren interesen ordezkariak baitira botere publikoen aurrean. Alde horretatik, funtsezko eginkizuna betetzen dute, besteak beste, alor hauetan: giza eskubideen sustapena,



UDALBIDE
Elkarlan
Elkartea

gazteria, osasun publikoa, kultura, lana sortzea eta antzeko beste batzuk. Xede horrekin, Legeak aurreikusten du Administrazio Publikoek laguntzak eta dirulaguntzak ematea, betiere indarrean dauden lege eta arauekin bat.

Elkartek Administrazioekin elkarlanean aritu behar dute, bai eta industriarekin, merkataritzarekin, enpresaburuen erakundeekin eta erakunde sindikalekin ere, bereziki gai hauetan: kultura, ingurumena, hezkuntza, osasuna, gizarte babesa, langabeziaren aurkako borroka eta giza eskubideen sustapena. **UDALBIDE Elkarlan Elkartea** ordezkar horiekin elkarlanean aritu nahi du, bere helburuak betetzeko.

Elkartek gizartearen eta politikaren bizitzan parte hartzen dute askatasunetik eta aniztasunetik eta, aldi berean, aitortu ere aitortzen zaie beren eginkizunak oso garrantzitsuak direla, gizartea aldatu eta eraldatzeko eragile diren aldetik, subsidiariorotasun-printzipioaren arabera.





UDALBIDE
Elkarlan
Elkartea

UDALBIDE Elkarlan Elkartearen jarduketa ildo nagusiak

Euskal herritarrek elkarren artean kohesionatu eta harremanetan sartzeko funtsa

Hona zer dioen **UDALBIDE Elkarlan Elkarteko** estatutueta 2. artikulua, hitzez hitz: " Elkartearen helburua hau da: Lurralde guztietako udalen arteko harreman konstruktiboa bultzatzea. Honela, ekimen hitzartuak sustatuko dira hizkuntza, kirola, ingurugiro, lurralde antolaketa, ekonomia garapena eta gizarte ongizate esparruetan, halaber udalek esleitutako eskuduntza daukaten gai haietan.

Ekimen hauek aurrera eramateko, Elkarteak eskura dituen baliabide guztiak erabiliko ditu lehen aipatutako helburuak zabaltzeko.

Erakundearen helburu nagusia elkartasunerako funts bat eratzea da, euskara eta euskal kultura gorde, zaindu, garatu eta sustatzeko, betiere helburu hori behar bezain lagundua ez dagoen lurralde haietan, bai eta euskarak eta euskal kultur ondareak babes apalagoa duten tokietan ere. Gaur egun, euskara hizkuntza gutxitua da, guztion ondarea, hiztun izan ala ez, eta Europako bertako kultur ondasuna ere bai.

Halaber, **UDALBIDE Elkarlan Elkarteak** lan egiten du, lurralde guztietako euskal herritarrek elkar ezagutzeko eta harremanetan sartzeko aukera izan dezaten, bai eta elkarren arteko euskal nortasuna sakontzera eta sustatzera bideratutako proiektuak lantzeko parada izateko ere.

Azkenik, **UDALBIDE Elkarlan Elkartea**, bere izenak dioen bezala, udaletan oinarritzen da: Horrek Udalen eta gainerako euskal erakundeen konpromisoa eta ahalegina adierazten du, arestian aipatutako xedeak egiten laguntzeko, bai eta Euskadi bere lurraldetasun eta kultura osoan ikusteko ere. Hitz batez, Euskadi Herrialde gisa ikusteko.

UDALBIDE Elkarlan Elkarteak ondoko irizpide hauei loturik garatuko ditu bere jarduketa ildo nagusiak: begiramena, borondatea, gizartearekiko sinergia, Europako herrien batasunean oinarrituriko europazaletasunaren sustapena eta giza eskubide guztien defentsa.



Hona hemen Elkartek izanen dituen jarduketa ildo nagusiak:

A) Euskara euskal lurralde guztietan babestu, gorde eta sustatzea.

1. Bertako hizkuntzak Europako Batasunean babestea. Printzipioak.
2. Hizkuntza gutxituak Europako proiektu batuan.
3. Euskara, hizkuntza gutxitua bere hiru administrazio eta politika mailako esparruetan: EAE, Nafarroa, Iparraldea/Pays Basque.

- 3.1.- Nafarroa
- 3.2.- Iparraldea

4. **UDALBIDE Elkarlan Elkartearen** jarduketa-programa esparru horietan.

B) Euskal nortasuna eta kultura bere lurralde guztietan gorde eta sustatzea.

C) Lurraldeen arteko harremana eta lankidetzaren sustatzea. Euskal lurraldeetako erakundeen eta herritarren arteko harremanak sustatzea.



- 1.- Erregio edo tokiko taldeen arteko lankidetzaren sustatzea, hizkuntza berbera hitz egiten duten lurraldeetan. Udalerrien arteko lankidetzaren:
 - a) Lankidetzaren sektorez sektore
 - b) Udalerrien arteko harremana: Senidetzeak
- 2.- Herritarren arteko lankidetzaren eta harremanaren sustatzea.

D) Euskadi berezko erakunde gisa, herrialde bakar baten gisa, ikustera bideratutako ekimenak sustatzea: PAYS BASQUE, EUSKAL HERRIA, PAIS VASCO


1. Kirol alderdia: Euskal selekzioak lagundu eta sustatzea.
2. Politika Euskal lurraldeetako erakundeen, taldeen eta ordezkarien arteko gogoeta eta lan foroak sustatzea.
3. Kultura: PAYS BASQUE, EUSKAL HERRIA, PAIS VASCO markako ekimenak sustatzea hainbat arlotan: kultur ondarea, folklorea, turismoa...
4. Ekonomia eta gizartea: Bere zerbitzu eskaintza duen herrialde bat bakarra



A) EUSKARA EUSKAL LURRALDE GUZTIETAN BABESTU, GORDE ETA SUSTATZEA, bereziki bere babesa eta/edo egoera ahulagoa den lekuetan.

1.- BERTAKO HIZKUNTZEN BABESA EUROPAKO BATASUNEAN. IRIZPIDEAK.

Historian barna, hizkuntza gutxituak baztertu eta zokoratuak izan dira, haien kontrako jazarpenak egin dira, hizkuntza ofizialen mesedetan. Europako Kontseilua eta Europako Batasuna bezalako erakundeak saiatzen ari dira egoera horiek zuzentzen, hizkuntza aniztasuna aintzat hartzearen bidez, horixe baita Europa berriaren eraikuntzako ezaugarri nagusia. Era berean, lege mailako neurriak hartu dituzte, esaterako: **Erregio edo Gutxiengoan Hizkuntzen Europako Karta** edo Gutxiengo Nazionalak babesteko Hitzarmen Markoa.

EUROPAKO BATZORDEAK (erregio  eta gutxiengoan hizkuntzak eta kulturak babesteko programak) dio hizkuntzak banako eta talde identitatearen funtsezko osagai eta funtsezko adierazpide direla, bai eta kulturak transmititzekoa ere. Hizkuntza eta kultura aniztasuna errespetatzea funtsezkoa da Europako herritartasunean.

Ofizialak ez diren 40 hizkuntza historikotik gora

Batasuneko hizkuntza ofizialez gain, Europan berrogei hizkuntza historikotik gora ere mintzatzen dira eta denak dira Europako herritar guztien kultur ondare. Horietako batzuk desagertzeko zorian egonen dira datozen berrogeita hamar urtean.

Hizkuntza horien egoera oso desberdina da hiztun kopuruari eta haien profilari dagokienez, bai eta hizkuntzak hezkuntzan, administrazioan, bizitza publikoan eta lan esparruan duen indarrari dagokionez ere. Baina, den denek erronkak eta zailtasunak dituzte. Europako Batasunak paregabeko ekarpena egin dezake, hizkuntza horiek bizirik irauteko, bai eta garatzeko ere. Horretarako, badira hainbat bide: esperientzia eta ezagutza espezializatuak trukatzea, arlo honetako profesionalen arteko sareak eratzea eta irtenbide bateratuak aplikatzea.



Carta europea de las lenguas regionales o minoritarias helbidean honela daude definiturik erregio edo gutxiengoen hizkuntzak: Estatuko herritarren parte batek aspaldidanik erabilitako hizkuntzak dira eta ez dira Estatuko hizkuntza ofizialen dialektoak, etorkinen hizkuntzak, ezta artifizialki sortutakoak ere. Gehienetan, belaunaldiz belaunaldi transmititu dira.

Definizio horrek era askotako hizkuntzak hartzen ditu bere baitan, bai eta era askotako gizarte, politika eta hizkuntza egoerak ere.

60 hiztun komunitatetik gora

Guztira, badira erregio edo gutxiengoen hizkuntzak hitz egiten dituzten 60 hiztun komunitatetik gora. Komunitate horien gizarte, ekonomia eta politika egoera izugarri desberdina bada ere, gauza askok ere parekatzen dituzte Europako Batasunaren bitartez. Komunitate batzuek loturak dituzte muga nazionalen gainera, Espainiako eta Frantziako euskararen eta katalanaren komunitateek bezala;... Zalantzarik gabe, nahiz eta lotura horiek garrantzitsuak diren eta erregioen artean sustatzen diren, erregio eta gutxiengoen hizkuntza komunitate la guztiek badituzte interes berberak beren hizkuntzen eta kulturen biziraupenari eta garapen etengabeari begira, hala nola Europako Batasunean bere potentziala garatzeari begira.

Hizkuntza eta kultura aniztasuna errespetatzea

Europako Batasuneko oinarrietako bat da, orain Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutunaren 22. artikuluan bildua. Artikulu horren arabera "Batasunak kultura, erlijio eta hizkuntza aniztasuna errespetatzen ditu". Europako Legebiltzarrak hainbat ebazpen eman ditu kontu horri buruz eta bere ekimenez, Europako Batasunak zenbait neurri hartu ditu, Europako erregio eta gutxiengoen hizkuntzak babestu eta sustatzeko. Neurri horien arabera, dirulaguntza ematen zaie Oficina Europea de Lenguas Minoritarias erakundeari eta Mercator informazio sareari eta, era berean, diruz ere laguntzen ditu erregio edo gutxiengoen hizkuntzak babestu eta sustatzera bideratutako ekimen praktikoek proiektuak.



Hizkuntza komunitateak errespetatzea bakerako bermeetako bat da

UNESCOk kultura aniztasunaz egindako adierazpen unibertsalak dio kultura aniztasuna errespetatzea, tolerantzia, elkarrizketa eta lankidetzeta oso berme onak direla nazioarteko bakea eta segurtasuna ziurtatzeko. Era berean, adierazpen horrek dio informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriek eraginik, globalizazioa azkar zabaltzen ari dela. Hori kultura aniztasunerako erronka izanik ere, behar bezalako baldintzak sortzen ditu kulturen eta zibilizazioen arteko harreman berrietarako.

Halaber, *Linguapax* Institutuak dio gure munduan gero eta lotura handiagoa dutela herriek, kulturek eta hizkuntzek. Institutu horrek hizkuntza aniztasuna babestera eta hizkuntzen ikaskuntza sustatzera bideratutako hizkuntza politikak bultzatzen ditu. Hizkuntza komunitateak errespetatzea bakerako bermeetako bat da. Komunitateek auto-estimua esperientziak bizitzen badituzte eta beste hizkuntza komunitateekiko harreman egokiak badituzte, segurtasunerako eta bakerako baldintzak sortzen dira. Bestaldetik, hizkuntza harreman ugari dauden tokian, hizkuntzak ikastea kultura artekotasuna eta bakea ulertzeko bidea izan daiteke.



2.- GUTXIENGOEN HIZKUNTZAK EUROPAKO PROIEKTU BATUAN

Elebakartasuna salbuespena izanen da eta eleaniztasuna, aldiz, araua.

Europako Batasuna eraikitzeak aldaketa sakonak ekarri ditu ekonomiara, gizartera eta politikara eta, aldi berean, aldaketa horiek mundu osoan gertatzen ari den globalizazioan txertaturik daude. Bada, horrek guztiak europarren komunikazio beharrak aldarazi ditu. Aldaketa horiek hizkuntzentzat ere ondorioak dituzte eta, laburbilduz, esan dezakegu European elebakartasuna salbuespena izanen dela etorkizunean eta eleaniztasuna, aldiz, araua.

Europak kulturaren eta hizkuntzetan duen aberastasuna gorde behar da eta, aldi berean, zehaztu behar da zeintzuk izanen diren Batasuneko hizkuntza ofizialak, zeintzuk Europako erakundearen arteko sarean erabiliko direnak eta, azkenik, zein izanen den Europako Batasuneko politika batua gutxiengoaren hizkuntzei buruz. Beraz, Europako proiektu politiko berriak Estatuaren hizkuntza ofizialeetatik harata jotzen du, estaturik gabeko gutxiengoaren hizkuntzak bere barnean ere biltzeko.



Sortzen ari den Europa batuan hizkuntza aniztasuna berezko ondarea da eta europarrok hizkuntza bat baino gehiago menperatu beharko dugu. Viviane Reding, kultura eta hizkuntza arloko europar arduraduna izandakoak hauxe esan zuen: "*Biharko Europan, bertako biztanleok hiru hizkuntza jakin beharko ditugu: gure ama hizkuntza, bizi garen estatuko hizkuntza ofiziala eta beste europarrekin komunikatzeko hirugarren hizkuntza*".

Euromosaic

Europako Batzordeak agindurik argitara eman berri den Eurmosaic deritzon txostenaren arabera, Europako Batasunean 48 hizkuntza talde daude eta gutxiengoak 31 dira. 48 talde horietatik, erdia baino gehiago ez dira 100.000 bizilagunetara iristen (zehazki, 48tatik 29). Orokorrean, Europako Batasuna osatzen duten herritarren % 5 inguruk gutxiengoak hizkuntza bat hitz egiten du, hau da, 350 milioitatik 20 bat milioi, zenbaki borobiletan emateagatik. Zenbaki horiek argi azaltzen duten bezala, hortxe dago gutxiengoak hizkuntzen afera Europan. Egia da egoera horri buruzko jarrera aldaketa gertatzen ari dela Europan, hau da, orain gehiago direla hizkuntza aniztasuna babestearen aldeko jarrerak.



Hala ere, oso desberdinak dira oraindik ere gutxiengoak hizkuntza talde europarren egoerak eta perspektibak. Zenbait taldek argi eta garbi aurrera jo dute azken urteotan. Baina, beste batzuk, aldiz, atzera doaz eta, are gehiago, desagertze bidean daude.

Gaur egun, Europako, Estatuetakoa eta Erregioetako erakundeek ez badute irmotasunez laguntzen, ezin izanen da galarazi Europako identitatearen adierazpiderik nabariaren parte baten galera, hots, bere kultura eta hizkuntza aniztasuna. Beraz, guztiz beharrezkoa da erakundeen laguntza irmoa, beren etxean arrotz ez sentitzeko europarrik izan ez dadin.



Dinamika soziolinguistikoa islatzen duten egoerak

Gutxiengoen hizkuntza taldeen indar soziala aztertzerakoan, Euromosaic txostenak oinarrizko hiru egoera bereizi ditu eta horrek garbi islatzen du zein dinamika soziolinguistikotan dauden aipatu taldeak:

a) Ez produkzioko egoera, hau da, atzera doan egoera edo ordezkapen linguistikoa:

Lehenik eta behin, Europako Batasuneko talde batzuk ez produkzioko egoeran daude, hau da, atzera doaz eta beste hizkuntza bat hartzen ari dira. Egoera horrek esan nahi du seme-alabek uzten diotela gurasoen hizkuntza gutxitua hitz egiteari. Horra egoera honen ezaugarri nagusia.

b) Erreprodukzioko egoera edo hizkuntza mantentzen duten taldeak

Beste talde batzuk erreprodukzioko egoeran daude, hau da, hizkuntza mantentzen dute. Talde horietan normaltasunez gertatzen da hizkuntza gutxituaren transmisioa gurasoengandik seme-alabengana. Hori da bere ezaugarria.

c) Produkzioko egoera edo hazten ari diren taldeak.

Hirugarren multzoan daude produkzioko egoeran dauden edo hazten ari diren taldeak. Talde horietan seme-alabek hitz egiten dute gurasoek ez zekiten hizkuntza gutxitua. Horra zein den ezaugarria.

Comparecencia

Ez produkzio, erreprodukzio eta produkzio egoera horietako bakoitzak zer ikusi handia du era askotako faktore ugarirekin. Horrela, migrazioen eta taldeaz auto-estimua apala dakarten akulturizazio prozesu konplexuen ondorioz, gutxiengoen hizkuntzen hiztunen artean ez produkzioko egoera sortzen da, hau da, ordezkapen linguistikoa gertatzen da haien artean.

Bestaldetik, familia eta komunitatea oinarrizko azken bi gizarte erakundeak dira hizkuntzari eusteko, hizkuntza babesteko, eta hiztunen portaeraren arabera, hizkuntza ez produkzioko egoeran sartuko da edo, bestela, erreprodukzio egoeran.



Dinamika soziolinguistikoa lurraldez lurralde euskarari dagokionez

Bi erakunde horien funtzionamendua azaltzen duten mekanismoei dagokienez, euskarari buruz egindako ikerlanek diote gutxienezko bi baldintza gertatu behar direla, familiak eta komunitateak hizkuntza erreproduktorako duten eginkizuna beteko bada.

1.- Batetik, hiztunak txertaturik egon behar du, bai familian bai komunitatean, gutxiengoaren hizkuntza mintzatzen dakitenen portzentaje altuko testuinguruan. Portzentaje hori %75 ingurukoa da euskarari dagokionez. Hau da, euskaldunak euskara erabiliko du soilik bere mintzakide gehien-gehienek euskaraz mintzatzen dakitenean. Hori beste hizkuntza komunitate batzuetan ere gertatuko balitz, esan genezake gutxienezko atalase soziolinguistikoa batera iritsi behar dela hiztunaren harreman sarean, gutxiengoaren hizkuntzaren erabilera bermatuko bada.

2.- Bestaldetik, euskarari doakionez, gauza jakina da hiztunak erraztasun handiagoa (edo hainbatekoa) izan behar duela gutxiengoaren hizkuntzan hizkuntza gehiengoduneari baino, gutxiengoaren hizkuntza maiztasunez erabiliko badu. Beraz, esan genezake gutxienezko atalase soziolinguistikoa behar dela, gutxiengoaren hizkuntzaren erabilera bermatuko bada.

Familiarekin eta komunitatearekin batera (izaera sozialeko erakunde adierazgarriak), beste faktore batzuek ere modu nabarmenean eragiten dute gutxiengoaren hizkuntzen egoeran (ez produkzioa, erreproduktzioa eta produkzioa), hots, botere publikoekin zerikusia duten faktoreek, alegia. Gutxiengoaren hizkuntzen legitimazioaren eta irakaskuntzaren eginkizuna da.

Gutxiengoaren hizkuntzaren legitimazioa hiztunen lurraldean bertan

Botere publikoek gutxiengoaren hizkuntza taldeak babestu eta sustatzearen aldeko legeria eta politikak egiteari esaten zaio legitimazioa. Legitimazio mailak zuzenean eragiten du talde horien egoeran, euskal kasuak argi eta garbi erakusten duen bezala.



Euskaldunen komunitatea **hiru unitatetan banatua dago politika eta administrazioari** dagokienez. Horrek eraginik, eta haietako bakoitzean garatu den legitimazio mailaren arabera, egoera soziolinguistiko desberdinak dituzten hiru hizkuntza talde sortu dira.

Horrela, Espainiako Estatuan, euskaldunak bi erkidego politiko desberdinetan bizi dira, hots, Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroako Foru Komunitatean. Hirugarren taldea, ordea, Frantziako Estatuan bizi da, Pirinio Atlantikoak deritzon Departamentuan.

Euskararen legitimazio maila desberdina da hiru talde horietako bakoitzarentzat

Euskal Autonomia Erkidegoan euskara hizkuntza ofiziala da bere lurralde osoan gaztelaniarekin batera. Nafarroako Foru Komunitatean gaztelania hizkuntza ofiziala da lurralde osoan eta euskara ofiziala da lurraldearen zati batean besterik ez. Eta, azkenik, Pirinio Atlantikoak departamentuan frantsesa da hizkuntza ofizial bakarra.



Lurralde euskaldunen diagnostiko soziolinguistikoa

Talde horietako bakoitzari dagokion diagnostiko soziolinguistikoa honela laburbildu liteke: *Euskal Autonomia Erkidegoko euskaldunak **produkzio edo hazkunde linguistikoan daude**; Nafarroako Foru Komunitatekoak **erreprodukzio edo mantentze linguistikoan** eta, azkenik, Frantziako Estatuako euskaldunak **ez produkzio edo atzerapen linguistikoan daude**.*

Hezkuntza

Hein batean legezko aitortpenari lotua, botere publikoek beste lanabes eraginkor bat erabiltzen dute ez produkzioko, erreprodukzioko edo produkzioko prozesuak sustatzeko, gutxiengoen hizkuntza taldeetan.



Euskarari dagokionez, badira hiru ondorio nabarmen.

1.- Lehenik eta behin, erakusten du euskarazko irakaskuntza oso laguntza lanabes eraginkorra dela familiarentzat eta komunitatearentzat hizkuntza erreproduzioaren prozesuan, halako moduan non familia euskaldunak gaur egun ia erabat ziurtatua duen hizkuntzaren belaunaldien arteko transmisioa, baldin eta seme-alabak euskarazko irakaskuntzako ikastetxeetara eramaten baditu. Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako Foru Komunitateko esperientziek horixe frogatzen dute.

2.- Bigarrenik, halaber esperientziak dio botere publikoek hezkuntza elebidunaren alde egiten duten apustua hizkuntza produkzioarako lanabes sendoa dela. Izan ere, ondorioz, 16 urtetik behekoen %70ek badaki euskaraz mintzaten gaur egun Euskal Autonomia Erkidegoan.

3.- Hirugarrenik, Frantziako Estatuan dagoen Euskal Herriaren egoerak erakusten digu nola euskarazko irakaskuntzak hezkuntzan duen indar apalak zuzenean eragiten duela ez produktzio edo atzerapeneko hizkuntza prozesua.



Gutxiengoen hizkuntzak ekonomian erabiltzeak duen garrantzia

"Batzuek frogatu nahi izan dute euskara literatur eta zientzia hizkuntza bihurtu daitekeela bai, burutik jota dauden gutxi batzuek, eta filologoaz mozarroturik dauden euskaro karlista askok, munduko egia osoa Astete-n bildua dagoelakoan.". Pío Barojak "El vascuence" artikuluan, 1901eko abuztuaren 31n

Gutxiengoen hizkuntzen hiztunak erlatiboki gehiago izaten dira ekonomia sektore tradizionalan (nekazaritza, abeltzaintzat eta arrantza), bai eta zerbitzuetako segmentu batzuetan ere, bereziki kultur turismoari lotutako haietan.

Nola halako aitorten ofiziala baldin badago, gutxiengoen hizkuntzak ere bere lekua izaten du hezkuntzan, bai eta, oro har, Administrazioan ere.



Gutxiengoan hizkuntza, ordea, ez dago ekonomiaren beste sektore nagusietan eta horrek auto-irudi negatiboa sortzen du hizkuntza haien hiztunengan. Ondorioz, beren hizkuntza testuinguru tradizionaletara mugatzen dute, bizitza pribatura. Hitz batez esateko, mundu "emozionalera". Prestigio handieneko jarduerak, aldiz, hizkuntza "modernoetan" eta "arrazialetan" egiten dira, hau da, estatuko hizkuntza ofizialetan eta gehiengodunetan.

Halako testuinguruetan, gutxiengoan hizkuntzaren aldeko ekintza positiboa behar da, mendetan hizkuntzari erantsi zaion zentzu txarra gainditzeko.

Eragina lan espektatibetan. Hizkuntzen motibazio instrumentala

"Euskarak, dagoeneko, ez du balio. Haren desagertzea aukera emanen du gizakiek hobeki elkar ulertzen" Euskara tuberkulosiak jota dagoen gaixoa da, hil zorian dagoena". *La lucha de clases*, Bilbo, 1901

"Sekulako erokeria da aberri txikiak hitz egitea eta hizkuntza erregional bat gorde nahi izatea jende oro unibertsalizatzen ari den honetan". *La lucha de clases*, Bilbo, 7-X-1901



Horrela, gutxiengoan hizkuntzek ez dute ia eraginik herritarren lan espektatibetan eta oso eragin txikia dute herritarren mobilizazio sozialean. Hitz gutxitan esanik, ez dute motibazio instrumentalik, ez dira erabilgarri eta baliagarri ikusten ekonomiarako.

Gutxiengoan hizkuntzak ekonomia munduaren periferian daude eta hori hein batean dator modernotasunaren diskurtsotik. Izan ere, diskurtso horrek lotu egin du garapen ekonomikoa estatu barneko kultur eta hizkuntza homogeneizazioari. Modernotasunaren diskurtso hori Ilustrazioarekin batera abiatu zen, baina gaur egun bestelako ereduak ari zaio kontrajartzen, hots, *aniztasunak dituen ahalmenak garapen ekonomikora bideratu behar dira*. Planteamendu berri horren arabera, aniztasuna garapen eta aurrerapen iturri da, azpi baloratua eta ia esplotatu gabe dagoena. Betiere, aniztasuna hainbat jatorri kultur eta historikotan oinarritzen da. Pentsamolde ildo horren arabera, aniztasuna ezagutza sortzeko eta berrikuntzarako eragile litzateke eta bi alderdi horiek, bi biak, funtsezkoak dira gaur egungo garapen ekonomikoan.



Hizkuntza aniztasuna: dibertsitatearen adibidea

Hizkuntza aniztasuna erabat lotzen zaio planteamendu horri, dibertsitatearen funtseko osagaia baita. Berrikitan argitara eman den bezala, "**hizkuntza bakoitza unibertsoaren nola halako eredu da, mundua ulertzeko sistema semiotikoa, eta mundua deskribatzeko 4.000 modu desberdin baditugu, horrek aberatsago egiten gaitu**". V. V. IVANOV, Reconstructing de Past, 1.992.

Garapen ekonomikoa hizkuntza aniztasunarekin lotzen duen ildo horretan berean, aurreikusteko modukoa da gutxiengoen hizkuntzek leku handiagoa hartzea kalitate sistemen garapenetan, bai eta bezeroa gogobetetzeko garapenetan ere. Europa eleanitzean, normala izanen da hiztun kopuru nabarmen batek gutxiengoen hizkuntzak lehentasunezko hizkuntza gisa aukeratzea, eta zerbitzuen nahiz produktuen eskaintza merkatuaren hizkuntza inguruabarretara moldatzea, betiere kontsumitzaile horien interesei eta eskubideei hobeki erantzuteko.

Egokitzapena informazio eta komunikazioaren teknologia berrietara



Jakina denez, merkatuko indarrak halako hizkuntza kopuru mugatu batera bideratzen dira eta kanpoan uzten dituzte teknologia berrietan leku apala edo lekurik ez duten hizkuntzak erabiltzen dituzten kultur, gizarte, merkataritza edo zientzia esparru zabalak, gizabanakoak eta enpresak.

Testuinguru horretan, botere publikoek behar bezalako bitartekoak sor daitezten sustatu eta lagundu behar dituzte, bai eta eraginkortasunez sortu eta sustatu ere, teknologia berrietan lekurik txikiena duten hizkuntzak (eta horien artean gutxiengoen hizkuntzak daude) informazioaren eta komunikazioaren hizkuntzetan sartzeko.

Horra non jokutzen den hizkuntza horien etorkizuna, hein handi batean. Izan ere, aditu batzuek iradoki dute hizkuntza bazterketa ez dela soilik gertatuko Estatuko hizkuntzen eta gutxiengoen hizkuntzen artean, baizik eta baita informatika programetan leku eta jarduera nahikoa dutenen eta ez dutenen artean ere.



Europako Karta: gutxiengoaren hizkuntzen erabilera ekonomia eta gizarte arloan

Europako Kartaren 13. artikulua mintzo da gutxiengoaren hizkuntzen erabileraz ekonomian eta gizartean. Badira bi zati oso desberdin.

1.- Lehenbizikoan, Kartak gutxiengoaren hizkuntzen ahozko erabileraren eta erabilera idatziaren debekua eta mugak ezabatu nahi ditu ekonomia eta gizarte jardueretan.

2.- Bigarrenean, Kartak neurri batzuk proposatu ditu gutxiengoaren hizkuntzen erabilera ahalbidetu edo sustatzeko finantza arloko agirietan, enpresen sektore publikoan, ospitaleetan, zaharren egoitzetan, segurtasunezko oharretan eta kontsumitzaileen eskubideei buruzko argibideetan.

Europako Erakundeek ahalegin berezia egin behar dute, afera hori ahalik eta lasterren konpontzeko. Onena litzateke Europako gutxiengoaren hizkuntzen bilakaerari buruzko azterlanak egitea. Kartak bildutako esparruetan, hala nola: irakaskuntza, justizia, administrazioa eta zerbitzu publikoak, komunikabideetan, kultur jarduera eta ekipamenduetan, bai eta ekonomia eta gizarte arloan ere.



UDALBIDE
Elkarlan
Elkartea

Bestaldetik, Kartak balio beharko luke (kartak berak dioena betetzeko), gutxiengoaren hizkuntza berdina hitz egiten duten hizkuntza taldeen lankidetzarako eta, horrela, hizkuntza berbera hitz egiten duten Europako herritarren hizkuntza eskubideen berdintasuna bermatzeko eta, azkenik, gutxiengoaren hizkuntzei buruzko hizkuntza politika bateratua elkarrekin lantzen joateko.

Europako Batasunak Estatuak lotu behar ditu gutxiengoaren hizkuntzen aldeko politiketan.

Kartaren helburu nagusia betearazteko, Europako hizkuntza aberastasuna babestea, Europako Erakundeek ahalegina egin behar dute Estatuak gutxiengoaren hizkuntzen aldeko politikak egin ditzaten, gutxiengoaren hizkuntzetan hezkuntza bultzatzea, gutxiengoaren hizkuntzak sektore ekonomikorik dinamikoenetan sar ditzaten, kontsumitzailearen hizkuntza kontzeptua produktuen nahiz zerbitzuen eskaintzan gara dezaten eta, azkenik, gutxiengoaren hizkuntzak informazio eta komunikazioaren teknologia berrietara molda ditzaten.



3.- EUSKARAREN EGOERA NAFARROAN ETA IPARRALDEAN

3.1.-NAFARROA

Nafarroa ta euskera

«Uste oker bat oso zabaldua dago gure artean: onoko euskera ta aurrerapena alkarren etsai balira bezala. Euskerak —bai bakoitzarentzat eta bai gure erriarentzat— erderaren anai izan bear du gure artean.

Bi izkuntzen alde izango gera beti. Euskera jakitea ezta beiñere atzerapen izan bear, gure ezierarako. Gure gizonak bere baitan ikas dezakete beren bizibidea, euskera zokoratzeke.

Euskerak bereala bear duana guzior estimazioa da. Izen ona, dagokion bezela.

Gizon ikasiak euskeraz itzegiten asten diranean, gure izkera bereala piztuko da. Irakaskintza Nagusian erdiko eta bekoan sartzen degunean, euskerarena irabazita daukagu (...)

Oso nastua dabil, euskera ezpaibide ta politika-setaz joa dagoela uste duana.



Euskara alde elkartzeko erazakiak gauden naparrok, gure izkera oni zorri guztiak kendu behar dizkiogu. Ta au arrazoi garbi bateagatik: euskera napar guzien altxorra dalako, napar euskeldunena ta napar erdeldunena. Beraz, baita espainiar guztiena ere. (...)

Baiña orain da ordua, luza-eziña. Agintarien aldetik sortu bear degu lan-egitarau benetako ta ongi antolatutako bat, naparron izkuntza eriotzetik salbatzeko. Ta egiteko ori, laguntza iraunkor eta dirulaguntza erabakiz sendotutakoa sortu bear ko da. Au da garbi ikusten degun eginbearra.

MIGEL XABIER URMENETA, Foru diputatua / Zeruko Argia, 1967-XII- 24

Euskararen estatus juridikoa Nafarroan

Euskara **hizkuntza ofiziala da**, gaztelaniarekin batera, Euskararen Legeak **eremu euskalduna** izendatu duen zatian. Hona hemen eremu euskaldunean sarturik dauden udalerrriak:



Abaurregaina, Abaurrepea, Altsasu, Anue, Araitz, Arakil, Arano, Arantza, Arbizu, Areso, Aria, Aribe, Arruazu, Auritz, Bakaiku, Basaburua, Baztan, Bera, Bertizarana, Betelu, Donamaria, Doneztebe, Elgorriaga, Eratsun, Ergoiena, Erroibar, Esteribar, Etxalar, Etxarri Aranatz, Ezkurra, Garaioa, Garralda, Goizueta, Hiriberri, Igantzi, Imotz, Irañeta, Ituren, Iturmendi, Labaien, Lakuntza, Lantz, Larraun, Leitza, Lesaka, Luzaide, Oitz, Olatzagutia, Orbaizeta, Orbara, Orreaga, Saldias, Sunbilla, Uharte Arakil, Ultzama, Urdazubi, Urdiain, Urrotz, Ziordia, Zubieta, Zugarramurdi.

Euskara **ez da ofiziala Nafarroako eremu mistoan, ezta eremu ez euskaldunean ere.**

Hizkuntza Gutxituen Europako Bulegoak (EBLUL) behin baino gehiagotan salatu du ez direla betetzen Estatuak hizkuntza kontuetan bere gain hartu dituen nazioarteko konpromisoak. Hau da, eleaniztasunaren eta borondatearen printzipioen arabera, Nafarroan errespetatu behar dira Espainiako erresumak bere egindako konpromisoak Erregio edo Gutxiengoan Europako Karta berretsi zuenean. Horrek esan nahi du hau guztia ahalbidetu behar dela:



- Euskararen irakaskuntza eremu ez euskaldunean.
- Nafarroako herritar guztiek beren borondatez aukeratu ahal izatea haiek nahi duten irakaskuntza eredua.
- Eremu mistoko D ereduan ari diren DBHko ikasleek garraio eta jantoki eskubidea izatea, gaztelaniazko ereduetan ari diren ikasleek bezala.
- Nafarroako herritar orok hizkuntza eskubide berberak izatea
- Nafarroako herritar orok nahi duen hizkuntza aukeratu ahal izatea administrazio publikoarekin harremanetan sartzera.
- Euskaldunek euskarazko komunikabideak hartzeko aukera izatea.

Nafarroan gero eta handiagoa da euskarari loturiko eskaria

Euskaltzaindia erakunde aholku emaile ofiziala da hizkuntza kontuetan eta 2001eko martxoko adierazpenean agerian utzi zuen gora doala nafar gizarteak euskararen gainean egunez egun adierazten duen eskaria. "Irakaskuntza, komunikabideak edo administrazio publikoak bezalako gizarte bizikidetzaren esparru sozial nabarmenetan, herritarrek beren kezka agertzen dute, gero eta gehiago, *lingua navarrarum-aren* erabileraz, nafar guztien ondarea eta nafar nortasunaren ezaugarrietako bat".



Helburua: politikako desadostasun zilegien ginetik, euskara izan bedi gizarte kohesiorako tresna Nafarroako Foru Komunitatean, bai eta gainerako euskal lurraldeetan ere.

Erakundeek euskarari eman behar liokete European homologatuta dagoena bezalako tratamendua

Hala Hizkuntza Gutxituen Europako Bulegoa nola Euskara Kultur Elkargoa (Nafarroan euskara eta euskal kulturaren aldeko erakundea) bat datoz esaterakoan European homologatutako hizkuntza ereduetara bideratu behar dela euskararendako tratamendu instituzionala. Beraz, bultzada behar duen hizkuntza da eta, bestetik, salatu behar da Nafarroan ez dela betetzen Gutxiengoaren Hizkuntzen Europako Karta.

Hizkuntza Gutxituen Bulegoak azpimarratu du Europako herrialde guztietan onartu dela kultur eta hizkuntza aniztasunaren aldeko laguntza; hizkuntza araudiek hizkuntza gutxituaren aldekoak izan behar dutela; logika horrekin bat, diskriminazio positiboaren printzipioa onartu behar dela beste politika batzuetan gertatzen den bezala, esaterako, emakumearen berdintasunaren



aldekoan,... Halaber, onartu behar da europar guztien kultur ondarea zaindu eta gordetzeak duen garrantzia.

Irakaskuntza

Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroako Foru Komunitatean hizkuntza bereizteko hezkuntza sistema ezarria dute unibertsitatera iritsi arteko irakaskuntza mailetan. Horrek irakaskuntzako hizkuntza aukeratzeko eskubidea bermatzen du eta hiru hizkuntza eredu ezarri dira, irakaskuntza hizkuntzaren arabera:

- * euskarazko irakaskuntza eredu. Gaztelania irakasgai gisa (D eredu)
- * gaztelaniazko irakaskuntza eredu. Euskara irakasgai gisa (A eredu)
- * curriculumaren zati bat euskaraz eta beste bat gaztelaniaz ematen duen eredu (B eredu).



Esan behar da, Nafarroan, **eremu euskaldunean** baizik ez dagoela aipatutako irakaskuntza sistema (hau da, hizkuntza eredu aukeratzeko eskubidea eta euskara irakasgai gisa irakatsi beharra). Horrela, euskara ez da derrigorrezko irakasgaia ez eremu mistoan, ezta eremu ez euskaldunean ere, eta huraxe eskatu duten ikasleek euskara irakasgai gisa jasoko dute, Administrazioak baimena ematen badu eta, horretarako, haxe hartzen du kontuan: eskari kopurua, txostenak eta eskola bakoitzeko baldintzak.

Era berean, **eremu mistoan** Administrazioaren esku dago euskarazko hizkuntza ereduak jartzea ala ez, administrazioaren baimena behar da eta kontuan hartzen ditu arestian adierazitakoak.

Eremu ez euskaldunean ez daude euskarazko irakaskuntza ereduak aurrekusiak, ez abenduaren 15eko 18/1986 Euskararen Foru Legean, ezta euskararen erabilera Nafarroako irakaskuntza ez unibertsitarioan arautzen duen 159/1988 Foru Dekretuan ere.

Eremu ez euskaldunean dauden ikastolen egoera zailari irteera egoki bat eman behar zaio. Ikastola horiek hor egotea, eremu ez euskaldunean ere, hainbat nafarrek euskara berreskuratzeko duten nahiaren ezaugarri argia da.



Borondate horri lagundu behar zaio, nafar guztiek euskara ikasteko duten eskubideari bideak zabalduz.

Unibertsitateak, batez ere publikoak, euskarari ateak benetan zabaldu behar dizkio. Horretarako egin behar da:

- aspalditik aurreikusitako Euskararen Plangintza onartu eta aurrera eraman.
- Euskaraz eskaintzen diren titulazioak ugaritu behar dira
- Irakasleen hautaketa egiterakoan euskararen ezagutza kontuan hartu beharra dago.

Komunikabideak

Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legeak xedatzen du Administrazio Publikoek sustatu behar dutela euskarak gizartearen komunikabide publikoetan zein pribatuetan gero eta agerpen handiagoa izatea eta, xede horretarako, Nafarroako Gobernuak laguntza ekonomikorako eta materialerako planak eginen dituela, komunikabideek gero eta euskara gehiago erabil dezaten. Legeak aurreikusia du euskararen agerpena telebista eta irratieta, bai eta Nafarroak kudeatutako gainontzeko komunikabideetan ere. Baina adierazi behar da, orain arte ez dagoela Foru Komunitateak kudeatutako komunikabiderik. Azkenik, Legeak dio Nafarroako Administrazio Publikoek euskaraz egiten diren kultur eta arte agerpenak, liburu argitalpenak, ikus-entzunezko ekoizpena eta beste edozein jarduera babestuko dituztela.

Nafar Gobernuak, eskumena izan arren, ez du irrati telebista publikorik sortu eta ez du inolako erraztasunik eman EITBko euskal emisioak Nafarroan hartuak izan daitezen, biztanleriak eskatzen duen kasutan ere. Ondorioz, ez du sortu euskaraz emititzen duen telebista publikorik, ez eta dagoen bakarraren hedapena lagundu.

Bestalde, euskaraz argitaratzen diren aldizkariak ematen zaizkien diru laguntzak murriztuz joan dira.



Horrez gainera, 15 urtez Iruñerri osorako euskaraz emititzen duen nafar irrati bakarrari, hau da Euskalerrria Irratiari, Nafar Gobernuak ez dio oraindik emititzeko baimenik eman.

Ahulenari lagundu behar zaio, denak berdinak izanen bagara

Hizkuntza Gutxituen Europako Bulegoak txostena aurkeztu zuen Iruñean, 2004ko urtarrilean. Txostenaren bukaeran, 5 gomendio daude. Hona hemen:

1. "Euskararen erabilera politikoaren amaiera. Hizkuntzaren erabilera hitzunei dagokie. Beraz, hizkuntza bat edo bestea erabiltzeko eskumena ezin da administrazio baten esku egon inoiz".
2. Diskriminazio positiboa. Administrazioak egindako egintzak dira, gainontzekoak baino apalago abiatzen diren egoerak indartzeko. Gehienetan, luzaro iraun duen bazterketak sortu du desberdintasun hori. Horregatik, ahulduari lagundu behar zaio. Bestela, ez litzateke sekulan berdintasunik gertatuko eta beti aurreko abusu hura sarituko litzateke".
3. "Departamentuen arteko administrazio organoa eratu beharko litzateke, hizkuntza politika planifikatu eta osatzeko, Hizkuntzen Europako Kartaren eta Euskararen Foru Legearen printzipioekin bat.
4. "Nafarroan euskara garatu, defendatu eta sustatzearen alde ari diren eragileekiko harremanak finkatzea".
5. "Eremu ez euskaldunean irakaskuntza publikoa ahalbidetzea, borondate eta proportzionaltasun irizpideei jarraiki. Inor ez dezakegu behartu hizkuntza bat ikastera baina aukera eman behar zaio huraxe ikasi nahi duenari".

UDALBIDE Elkarlan Elkarteak aipatu helburu horien betearazpena sustatuko du berak zuzenean edo kontu horiek lantzen dituzten erakundeekin elkarlanean.



3.2.- IPARRALDEA

Euskara ez da ofiziala Ipar Euskal Herrian, eta administrazioaren aldetik, Pirinio Atlantikoak deitutako Departamentuan dago, Frantziako Estatuan. Frantziako Errepublikako hizkuntza frantsesa da eta horixe da hizkuntza ofizial bakarra. Hizkuntza bakarra da irakaskuntzan, lanean, trukaketan eta zerbitzu publikoetan. Ez euskarak, ez Frantziako herrietako beste hizkuntzek ere, ez dute inolako ofizialtasunik. Horrek esan nahi du botere publikoek

- ez dutela deus egiten hizkuntza horien ezagutza eta erabilera sustatzeko
- ez dituzte herrialdeko ondarean eta kultur aberastasunean sartzen frantsesa ez gainerako hizkuntzak
- eta ez dute uste hizkuntza ez ofizialek babes berezia merezi dutenik.

Ondorioz, hizkuntza ez ofizialek

- ez dute prestigiorik esparru ofizialetan
- eta, batez ere, ez haiek, ezta hiztunek ere, ez dute eskubiderik Estatuaren ikuspegitik.
-



Ofizialtasunik gabe, herritarrek bete behar dute hizkuntza gorde, zaindu, garatu eta sustatzeko eginkizuna, bai eta beren eskubideen aldarrikapena ere. Frantziako antolamendu juridikoak elkarte askatasuna, irakaskuntza askatasuna eta berdintasunerako eskubidea babesten ditu eta horiek zilegitzen dituzte euskararen aldeko lanean ari diren giza taldeen ekimenak eta ekintzak.

Adierazpen eta manifestazio askatasunek ere babesten dituzte euskarazko argitalpen eta komunikabide pribatuak, bai eta euskaldunen eskubideak aitortzearen aldeko ekintzak ere.

« *Le français sera seul en usage dans l'école* », stipulait l'arrêté ministériel du 7 juin 1880 fixant le règlement modèle des écoles primaires. « *La langue de la République est le français* », renchérit depuis peu l'article 2 de la Constitution (1992).



Euskararen egoera Iparraldean

Ipar Euskal Herriak gutxi gora behera 250 000 biztanle ditu gaur egun, baina pentsa zezakeen bezala, hauetariko gutxi ditugu euskaldunak. Ikasleen artean, %15.ak segitzen ditu bere ikasketak euskaraz.

1996.urtean SIADECO-k Euskararen egoerari buruz egindako txostenak, 3000 urteko hizkuntza zaharraren egoera larria dela azpimarratzen du.

212.400 biztanle kopurua kontutan hartuz, SIADECO-ren txostenak biztanleriaren %26,4.ak euskara bakarrik erabiltzen duela azpimarratzen du, heldu baita 56.100 euskaldun, %68,5.ak Frantsesa mintzatzen duelarik, eta %5,2.a elebiduntzat jotzen den bitartean, eta pentsa zezakeen bezala, kostaldeko egoera barnealdeko egoera baino larriagoa da.

Alta beldurgarriena ez da zifra horietan agertzen. Txostenaren emaitza Urteko Saitetan irakurtzen bada, geroa oso ilun agertzen da.



Inkestaren arabera gaur egun iparraldeko euskaldunen %69.ak 50 eta 65 urte baino gehiago du, bestalde 3 eta 24 arteko gazteen %17k bakarrik euskara erabiltzen duen bitartean.

Berriz ere agerian dugu iparraldean euskararen irakaskuntzaren egituren indartzea eta laguntzea beharrezkoa dela, bai hizkuntza ikasteko, eta bai bihar xoko guztietan euskara erabiltzeko.



Euskara Iparraldean¹:

Iparraldeko populazioan euskara oso ahula dago, batez ere erabilpen publikoan eta transmisioan. Ezagutza aski altua bada ere (ona % 33,2 eta zerbait % 22,8), transmisioak huts egin du: adinaren arabera arras apaltzen da gazte eta haurrengan (euskaraz deus ez dakitenak % 17 dira zaharrenean, eta % 61 gazteengan ; ongi dakiten haurrak % 5-10 artean dira). Erabilpen publikoa, oro har, hauxe da: % 5-8 artean, ezagutza baino 6 aldiz apalagoa.

- Hizkuntzaren ordezkapena azkar eta sakona da. Militanteen salbuespenarekin (% 5-10 artean izanen dira), euskaldun komunitateak ez dio bere hizkuntzaren presentzia eta bizitzari garrantzi handirik ematen, frantsesa bereganatu du, eta frantsesari ematen dio lehentasuna sozietatean bizitzeko eta familian aritzeko. Euskara mugatu da eremu sinbolikora, eta han ere ahultzen ari da, euskararik gabeko euskalduntasunaren ("basquitude") kontzeptuak erakusten duen bezala.



- Gobernu frantsesak ez du euskarari ofizialtasunik onartzen. Euskararen erabilpena norberaren askatasunaren eremuan sartzen da. Arlo pribatura mugatzen da. Iniziatiba pribatua arlo ezberdinetan mugi daiteke - irakaskuntza, komertzioa, seinaleak...- eta Estatuak errespetatu egiten du beti ere Errepublikaren printzipioak bortxatzen ez diren bitartean.

- Euskal Herri osoan, euskararen bizitza euskal nazionalismoaren indarrari lotu da, arras ez bada ere. Iparraldeko nazionalismoa ahula da (populazioaren %10 edo), eta mugimendu abertzaleak berak ez dio euskarari lehentasuna ematen, hautesle potentzialeekin komunikatzeko frantsesa baita lehen bidea. Abertzaleen artean ere, eremu sinbolikotik atera bada ez da batere prioritariora.

¹ Ikus EUSKAL HERRIKO SOZIOLOGIA INKESTA 2001.
http://www.euskadi.net/euskara_inkestak/iparra/eu/eu_ip_06.pdf



Iparaldean euskara berpizteko orain egin ahal direnak:

- Gobernuari ofizialtasuna exijitu. Horretarako, edozein komunitateri zor zaizkion eskubide linguistikoak aldarrikatu, eta Europako legedien arabera Frantziak duen isolamendu eta zurrunkeria salatu.
- Euskaldunei beren hizkuntza erabiltzeko deia luzatu eta gogoia eman eta euskararen presentzia publikoa areagotzeko kanpainak eraman.
- Euskalgintzarako inizatiba guztien (irakaskuntza, helduen euskalduntzea, komunikabideak,...) sostengu sozial, politiko eta finantzieroa.
- Abertzaleei euskara erabiltzeko eta balioa emateko ekintzak eta deiak antolatu.

IRAKASKUNTZA



Iparaldeko irakaskuntzan instituziorik azkarrena Sehaska da.

Iparaldeko euskarazko eskolek, ikastolek, Seaska federazioa osatzen dute. 1969an buraso multzo batek Iparaldeko lehen ikastola sortu zuen Arrangoitzen, Seaskaren babesean eta 1901eko elkarteei buruzko legearen araupean. Elkarte berri honek, jadaneko Hegoaldean molde egokian abiatu zen euskal irakaskuntza bultzatu nahi du Iparraldean, pedagogia metodo aurreratuenak erabiliz.

Hasieran batean xedea sinesgaitza bada ere, emeki-emeki, urak bere bidea egiten du eta urtero urtero, ikastola berriak sortzen dira han-hemenka.

Gaur egun, 20 bat herritan banatuak diren ikastoletan, 1900 ikasle inguruk euskaraz gauzatzen dituzte bere ikasketak, ama-eskolatik batxilergora arte.

Ibilbide hau ez da erraza izan. Traba ugari izan ditu, debeku saioak, laguntza hutsalak, itotze saioak. Sona handikoa izan zen adibidez, 1977 Donapaleuko debeku saioa.



UDALBIDE
Elkarlan
Elkartea

Lehen hamar urteetan diru zama jasankorra bada, ondorengo urteetan gisa, hezkuntza sistema bezala. Seaskak bizi ahal izateko, Frantses Hezkunde Nazionalari, zor zaion diru parte eskatuko dio.

Honela, zenbait urtez kalapita eta manifestazio anitzen ondoren, 1983an lehen hitzarmena izenpetuko du Seaskak Frantses Hezkunde Nazionalarekin, iruterako iraunen duena.

1985eko urrian, beste akordio bat izenpetzen dute aipaturako bi aldeek. Akordio honen arabera Seaskako irakasle guztien integrazio bidea finkatuko da. Baina 1986, Kontseilu Konstituzionalak deuseztatuko du.

Negoziaketak jarraitzen dute eta ondorioz, 1990ean, Frantses Hezkunde Nazionalak ama-eskolako eta lehen-mailako 61 langileren soldatak bere gain hartzen ditu. Seaskaren bigarren maila lizeoa barne hitzarmenetik kanpo gelditzen da.

1992an hitzarmena kolegiara ere hedatzen da eta 1994an beste hitzarmen bat burutzen dute Seaskak eta Frantses Hezkunde Nazionalak. Honetan ikastola guztiekin elkarte kontratua izenpetzea aurreikusten da.

Estatu Frantsesak, lehen aldiko onartzen du ikastola euskal irakaskuntza obratzen duen eskola .



ikasle kopurua

IKASTURTE A	AMA ESKOLA	LEHEN MAILA	KOLEGIO A	LIZEO A	OROTAR A
1969-1970	8	-	-	-	8
1970-1971	19	-	-	-	19
1971-1972	47	-	-	-	47
1972-1973	108	-	-	-	108
1973-1974	175	-	-	-	175
1974-1975	225	-	-	-	225
1975-1976	288	17	-	-	305
1976-1977	303	38	-	-	341
1977-1978	328	54	-	-	382
1978-1979	317	91	-	-	408
1979-1980	339	134	-	-	473
1980-1981	351	157	8	-	516
1981-1982	358	156	19	-	533
1982-1983	375	220	29	-	624
1983-1984	393	257	45	-	695
1984-1985	432	284	74	-	790
1985-1986	446	309	100	-	855
1986-1987	428	338	114	-	880
1987-1988	403	342	111	-	856
1988-1989	374	358	98	-	830
1989-1990	389	373	116	-	878
1990-1991	413	414	129	22	978
1991-1992	435	435	153	43	1066
1992-1993	463	460	179	52	1154
1993-1994	511	494	222	63	1290
1994-1995	527	548	234	69	1378
1995-1996	537	591	255	68	1451



1996-1997	527	637	281	70	1515
1997-1998	581	661	300	88	1630
1998-1999	580	692	341	92	1705
1999-2000	605	725	346	100	1776
2000-2001	593	765	387	106	1851
2001-2002	636	763	433	119	1951
2002-2003	597	821	424	135	1977
2003-2004	646	805	465	153	2069
2004-2005	653	821	477	176	2127
IKASTURTEA	AMA ESKOLA	LEHEN MAILA	KOLEGIOA	LIZEOA	OROTAR A



4.- UDALBIDE Elkarlan Elkartearen jarduketara-programa esparru horietan

GIZARTE ERAKUNDEAK Familia Komunitatea	<ul style="list-style-type: none">- Senzibilizazioa: Euskaldunei beren hizkuntza erabil dezaten, hizkuntzari balioa emateko ekimenak bultzatu eta euskararen presentzia publikoa areagotzeko kanpainak egitea.- Familiaren bitartezko ondorengotaratzearen bultzatzea Euskararen aldeko eta euskaldunen hizkuntza eskubideen aldeko elkartegintza sustatzea-Euskarazko aldizkarien eta ikasmaterialen argitalpena sustatzea- Merkatuan euskarazko zinea egon dadin lan egitea
HIZKUNTZAREN LEGITIMAZIOA	Euskal Herri osoan euskararen ofizialtasuna eskatzeko ekimenak bultzatzea
ERABILGARRITASUNA	Euskararen balioa, prestigioa, erabilkortasuna bultzatzeko ekimenak bultzatzea
HIZKUNTZA PAIASAIA	Paisaia linguistikoa euskalduna izateko ekimenak. Publikoa (hiri barru zein bide eta autopista) zein pribatua (denda, enpresa, supermerkatu, agiri...) azkartu eta bultzatu behar dira..



INFORMAZIO ETA KOMUNIKAZIOAREN TEKNOLOGIETARA EGOKITZEA	Euskara gaur egungo teknologia berrien munduan sartzeko ekimenak
HIZKUNTZA GUTXITUETARAKO EUROPAKO GUTUNA EUSKAL LURRALDE GUZTIETAN BETE DADIN BULTZATZEA	Orokorrean Gutunean jasotzen diren printzipioetan zein eskubideetan bultzatuko dituzten ekimenak
KOMUNIKABIDEAK	Euskarazko komunikabideen iraunkortasuna eta etorkizuna bermatzeko bideak azkartu eta proiektu berriak bultzatzea
IRRATIAK	Iparralde. Euskarazko zerbitzua ematen duten hiru euskal irratiek sostengu publikoa behar dute, finantzamendu iraunkorra. Euskara mantendu eta azkartzeko, beharrezkoa da etorkizuneko proiektuak oro-hartzaile, profesional eta iraunkorrak izatea. Bestetik euskarazko hegoaldeko irratia han entzunak izan ahal izateko baliabideak jarri behar dira. Nafarroa: Euskarazko irratia bultzatzea
TELEBISTA Telebista ezinbesteko tresna da euskararen bultzatze eta normalkuntzarako, jendearen partehartzea suspertzeko eta kultura zein ideia aniztasuna bultzatzeko	Iparraldean. Gaur egun, muga-gaindiko akordioei esker, Hegoaldeko telebista ikus daiteke Iparraldean, bereziki euskarazko telebista. Saiok iparralderako egokitzea eta bere ikustea bultzatzea Nafarroan: Nafarren nahiari eutsiz, EITBko seinalea, batez ere euskarazko telebistarena, bere lurraldean ikus dadin bultzatzea.
KOMUNIKABIDE IDATZIAK Hizkuntza idatziaren normalkuntza eta zabalkuntzarako merkatuan ezinbestekoa da % kopuru bat euskarazkoa izatea	Komunikabide idatziak. Bai Nafarroan bai Iparraldean, dauden euskarazko komunikabide idatziak bultzatu eta ekimen berriak sortaraztea.
IRAKASKUNTZA	
IRAKASKUNTZA ARAUTUA	Haurrak euskarazko eredueta matrikulatzearen aldeko kanpainak Euskarazko irakaskuntza sustatzea Euskarazko ikasliburuen argitalpena sustatzea



HELDUEN EUSKALDUNTZEA	Sentsibilizazioa Tokian tokiko eskaerari aurre egiteko bitartekoak eskaintzea
HELDUEN ALFABETATZEA	<ul style="list-style-type: none">- Sentsibilizazio aldetik: euskalkietaz gain, batuak elkarrekin komunikatzeko duen balioa azaltzea- Tokian tokiko eskaerari aurre egiteko bitartekoak eskaintzea

B) Euskal kultura batua gorde eta sustatzea

Nazio Batuen baitan, UNESCO erakundeari berariazko ahalmena eman zaio, kulturen aberastasun emankorra gorde eta sustatu dadin ziurtatzeko. Alde horretatik, **UNESCOK eginda du kultura aniztasunari buruzko adierazpen unibertsala** eta, horren arabera, kultura da gizarte batek edo giza talde batek dituen ezaugarri espiritual eta materialak, intelektualak eta afektiboak, eta arte eta letrez haratago doa: bizimoduak, elkarrekin bizitzeko moduak, balore sistemak, tradizioak, ohiturak, sinesmenak. Adierazpen horrek jasotzen du kultura identitateari, gizarte kohesioari eta jakintzan oinarrituriko ekonomiaren garapenari buruzko eztabaida garaikideen erdigunean dagoela eta, aldi berean, dio konfiantza eta elkar ulertze giroan, kultura aniztasuna errespetatzea, tolerantzia, elkarriketa eta lankidetzaren oso berme onak direla nazioarteko bakea eta segurtasuna ziurtatzeko.

Kulturaren Euskal Planean (2004-2007) bildua dagoen bezalaxe, KULTUR INTEGRAZIOA gehiago da jarrera, pentsamendu kolektiboko kontu bat, inbertsio kontua baino. Hainbat alderdi ditu:

— Euskal kulturaren *kontzeptu zabala* onartzeak zera dakar berarekin, erabat kulturarenak ez diren gune administratiboek ere esku-hartzea kultur eremuetan. Kultur kontuak alderdi askotarikoak dira, eta zeharo zeharkakoak, beraz forma anitzeko jardura behar dute.

— Sustapen gai izan daitezkeen kultur gertaeren sorta handitzea, belaunaldi berriek eskatutakoak bereziki, garaian garaiko lehentasunak hor izango badira ere.



— Euskal kultura, *Euskal Herriko* lurraldearen arabera, hainbat modu bereizitan adierazten dela onartzea.

—Euskal Herria errealitate historiko eta kulturaltzat eta euskalduntasunaren hainbat bertsio dituen ingurutzat ulerturik betiere—, eta kultur eta komunikazio espazio horretan kultur loturak bultzatzea, iritzi politiko eta gorabehera administratiboak alde batera lagata.

Azken kontu honek, EAEren, Nafarroako Foru Erkidegoaren eta Iparraldearen arteko banaketa administratibo eta politikotik urrunago helduz, honako hauek ditu ezinbesteko:

- Ahal den kultur ekintza gehien koordinatzea, aniztasunetik, erakunde publiko eta pribatuen artean.
- Euskal kultur merkatu bizi eta aberasgarria sortzea, bere barne-trukeei dagokienez.
- Sareko kultur eredia sustatzea, Euskal Herriaren gune anitzeko lurralde egiturarekin bat egitenduen, eredu integratzaile eta ikuspegi komun baten bultzatzailetzat.



— Era berean, inmigrazio berrien benetako eta errespetuzko integrazioa erronka bat da.

Nortasuna sendotzeak esanahi ugari ditu. Esanahi horiek, batetik, jasotako ondareari eta beroni emandako gizarte-estimazioari lotuta daude, eta sortze kolektiboko prozesuan dagoen ondareari bestetik; izan ere, bi ondare horiexek osatzen dute gaur egungo euskaldunen identifikazioa eta bereiztea.

Alderdi hori hainbat norabidetan zehatz daiteke:

— Kultura politikatik bereizteko *jarreran*. Nortasunak ez du ideologiarekin korrelaziorik, nahiz kudeaketa mailan izan. Desberdintze horrek, unean uneko aukera politikoetatik aparte, kultura bakar eta forma anitzeko bat ahalbidetuko du, eta baita nortasun kontzientzia kolektibo partekatu bat ere, gizarte-maila gehienetan behintzat, baita politikoaren eragina edota bortizkeriaren ondorioak nabarmen sentitzen utzi direnetan ere.



— Nortasuna iraganaren, orainaldiaren eta izan nahi denaren emaitza gisa ulertzeko prozesuan. Horrela hainbat gauza lortu nahi dira, hala nola:

- Ondareak berreskuratzea eta hauek ezagutu eta gozatzea. Horretarako Kultura, Etxebizitza, Industria eta Hirigintza sailen parte hartzea behar da, eta baita Hezkuntza Sailarena ere, hain zuzen ondarea bera eta duen historia ezagutuz geurearekiko estimazioa sendotzera begira.
- Ondareak balioztatzea, eskulangintza garatuz eta begirunez jokatzeko duten turismo modalitateekin lotuz.
- Gizarte bizitza aberats baten eta egungo euskaldunen *modus vivendi* desberdin eta hibridatuen adierazle diren kultur adierazpenen alde egitea, hauexek baitira, azken batean, etorkizuneko tradizioak sortuko dituztenak.

Alde horretatik, EAerako helburu batzuk honako hauek lirateke Kulturaren Euskal Planaren arabera eta, bere aldetik, **UDALBIDE Elkarlan Elkartea** saiatuko da gainerako euskal lurraldeetara zabaltzen:



Herritarren kultur aniztasuna eta kultur adierazpen desberdinak babestea.

— Euskarak produktu, zerbitzu eta komunikazioetan duen erabilera lurraldeka eta orokorrean duen batez besteko soziolinguistikoaren arabera izatea lortzeko ekintzetan; izan ere horrela, kasu askotan, saihestu egingo da kultur jarduerak erabileren eta hizkuntza normalkuntzaren prozesuan dagoeneko badiren programen atzetik joatea, edo are okerrago dena, horientzat guztientzat oztopo izatea.

• *Komunikabideetan:*

– FMko emanaldietan euskal musikaren —instrumentala edo zeinahi hizkuntzatakoa— presentzia musika-programazio osoaren %10 izan dadin lortzea, FM digitalerako bidea erraztuz.

– Irratiko euskarazko emisioen ehunekoak batez besteko soziolinguistikoetara hurbiltzea. Uhin zein baliabide digital bidezko telebista lokalek/lurraldekoek ildo bereko konpromisoak beregana ditzaten lortzea, bai bere produkzioan bai euskarazko emanaldietan.

– Euskarazko prentsa edo artikuluen irakurketa-kuota hobetzea, urte batzuk barru % 10era helduz prentsako irakurketa-mailari dagokionez.



Kultur produktu eta zerbitzuetan:

- Eskaintzarako bermeekin jarraitzea eta hobetzea, argitalpenetan, musika, antzerki edo zine ikuskizunetan, eta kultur sorkuntzan oro har eta bereziki euskaraz egiten direnean.
- Kultur, biblioteca, museo... zerbitzuek bere arretarako sistema hobetzea eta euskarazko arretarako eskubideari gero eta berme gehiago eskaintzen jarraituko dutela ziurtatzea.

UDALBIDE ELKARLAN ELKARTEAREN JARDUKETA-PROGRAMA ESPARRU HONETAN:

KULTURA	<ul style="list-style-type: none">- Euskal agerpen kulturalak gorde eta sustatzea- Memoria historikoa gorde eta sustatzea- Euskal ekoizpen eta kutur industriak sustatzea- ...
----------------	---



C) Lurraldeen arteko harremana eta lankidetzaren sustatzea. Euskal lurraldeetako erakundeen eta herritarren arteko harremanak sustatzea.

Erregio edo Gutxiengoen Hizkuntzen Europako Kartak Estatu sinatzaileak premiatzen ditu hizkuntza bera edo antzekoa erabiltzen duten eskualdeen gaineko estatuek dituzten bitariko edo askotariko akordioak betetzera, edo amaieraraino eramaten saiatzera, Estatu horietako hizkuntza beraren hiztunen arteko harremanak errazteko asmoz. Harreman horiek kultura, irakaskuntza, informazioa, lanbide heziketa eta etengabeko prestakuntzaren arlokoak izanen dira. Halaber, erregio edo gutxiengoen hizkuntza modu berean edo antzekoan erabiltzen duten lurraldeetako elkarlana erraztea eta/edo sustatzea, batez ere eskualde edo toki mailako elkarten artekoa, betiere erregio edo gutxiengoen hizkuntzen alde.



1.- Erregio edo tokiko taldeen arteko lankidetzak sustatzea, hizkuntza berbera hitz egiten duten lurraldeetan. Udalerrien arteko lankidetzak:

Kartak dakartzan gomendioen artean erakundeen eta herritarren arteko elkarlana eta lankidetzak sustatzea dago. Horretarako, neurriak hartuko dira, laguntza publikoa eremu pribatuko beste lankidetzak-esparru batzuetan isla dadin, bi lurraldeetan ari diren ekonomia eta gizarte eragileen bitartez, bi lurraldeetan ari diren hezkuntza eta kultura eragileen bitartez, antzeko xede sozialak dituzten finantza arloko entitateen bitartez, e.a...

Joera uniformizatzaileetatik urruti dagoen Europa anitzagoa lortzera bideratutako harremanak areagotzea. Esparru honetan egiten diren jarduketan xedea izanen da Europako Batasuneko kulturak, hizkuntzak eta tradizioen gaineko errespetua eta laguntza eraginkorra sustatzea, Iparraldearekiko mugaz gaineko elkarlana bultzatzea, bai erakunde publikoen artean bai erakunde pribatuen artean.

1.- Lankidetzak sektorez sektore: Mugaz gaindikoa lankidetzarako eta/edo lurraldeen arteko ekimenak: Landa garapena, turismo garapena eta abar.

Geografiari dagokionez, Euskal Herria zazpi lurraldetan kokatua dago eta, gaur egun, hiru esparru juridiko eta politiko desberdinetan, betiere bi estatutan:

- Espainiako Estatuan, Euskal Autonomia Erkidegoa (Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Lurralde Historikoak) eta Nafarroako Foru Komunitatea.
- Frantziako Estatuan, Ipar Euskal Herriko hiru lurraldeak (Nafarroa Beherea, Lapurdi eta Zuberoa).

Beraz, hiru esparru juridiko eta politikoetan zatiturik eta, zenbaitetan, elkarren kontra egonik, sektoreen arteko enpresa garapenak eta lankidetzak endogamiarantz jo du esparru horietako bakoitzean. Ondorioz, elkarren artean urrundu dira hiru Komunitateetako enpresa eta sektoreen arteko lankidetzarako aukerak eta ez dago elkarren arteko ezagutzarik. Jakina, egoera hori gertatzen ari da globalizazioa zabaltzen ari zaigunean, hots, mundu mailako enpresa lankidetzarako sareak antolatzen ari diren honetan. Europako Batasunak helburu du elkarren arteko harreman hori sustatzea.



Horregatik guztiagatik, gure iritziz, oso garrantzitsua da hiru Komunitateetako enpresen eta sektoreen arteko enpresa lankidetzarako sareak zabaltzea (Euskal Autonomia Erkidegoa, Nafarroako Foru Komunitatea eta Iparraldeko hiru herrialdeak). Sareak antolatu behar dira eta hori sustatu beharra dago. Izan ere, hiru Komunitatetan ere egituratuak gaude produktuak sustatzeko kontuetan, arlo askotan: nekazaritzako elikagaiak, turismoa, zerbitzuak, merkataritza, teknologia, jakintza eta abar. Beraz, bitartekaritza egiturak eratu behar dira Komunitate bakoitzean dauden beharrak antzemateko, bai eta enpresak eta/edo sektore interesatuak harremanetan jartzeko ere.

b) Udalerrien arteko harremana: Udalerrien arteko senidetzeak, estatu desberdinetako herriak hurbiltzeko bidea.

Senidetzea Bigarren Mundu gerraren ondotik sortu zen, orduantxe agerian gelditu baitzen aurrera egiteko bide bakarra auzokideekin elkarlanean aritzea zela. Hasierako helburua zen Europako hainbat herrialdetako zenbait hirik esperientziak trukatzeko tokiko bizitzako esparru guztietan.



Europako Batzordeko hiriak senidetzeko programa 1989an abiatu zen. Dirulaguntzak ematen zaizkie artaz aukeratutako hiriei. Programa horrek Estatu kideetako bizilagunen arteko harremanak indartu nahi ditu, Europako herrialdeei buruzko ezagutza hobetu eta, azkenik, herritarrak sentsibilizatu nahi ditu Europako eraikuntzaren lorpenez eta etorkizuneko erronkez, hiri eta udal senidetuen topaketen bitartez. Programa honek bereziki akordioak sustatzen ditu horrelako asko ez dagoen eremuetan.

Beraz, Europako Batzordeak bi esparruetan eskaintzen du laguntza:

Hirien senidetzea: horren baitan, Europako Batzordeak Europako Batasuneko Estatuetakoko hirien arteko trukaketak sustatzen ditu.

Hiru proiektu mota daude:

- 1.- Hiri senidetuetako edo senidetuko direnen hirietako bizilagunen arteko trukaketak.
- 2.- Elkartegintza bizkortzera bideratutako gai eta jarduera europarrei buruzko mintzaldiak eta bilerak.
- 3.-, Prestakuntza mintegiak, hirien senidetzeaz arduratzen direnentzat.



“Senidetzearen Urrezko Izarrak” saria

Senidetzearen Urrezko Izarrak urtero banatzen den sari baten izena da. Europako integrazioaren aldeko lanik handiena egin duten hiriei ematen zaie, beren herritarren arteko harremanak indartzearen bidez. Lan hori egiten dute aurreko urtean jaso duten dirulaguntzei esker.

UDALBIDE Elkarlan Elkartearen senidetze programa

Erakundeen arteko ezagutza eta harremanetarako lanabesa

HURBILTZEN Udalbideren programa bat da. Bere helburua da Euskadiko lurraldeetako Erakundeen arteko hurbilketa eta harremana. Lurralde historikoetako euskal udalerrien arteko ezagutza eta harreman hori oinarritzen da lurraldeen arteko senidetzean.



Kontuan hartzen dira udalerrri eta lurralde bakoitzaren ezaugarriak, baina aldi berean, elkarren arteko sustraia, hots, euskalduntasunaren agerpenak, horixe baita haien guztien arteko lotura.

Azken finean, senidetzea elkar ezagutzeko bitartekoa da, aitzakia. Lanabes horrek aukera ematen digu, erakunde baliokideek beren jardura zein testuingurutan lantzen duten lehen eskutik ezagutzeko. Nortasuna dugu elkarren artean, hizkuntza, kultura, bai eta historia ere. Esperientzia honen testuingurua errespetua da, borondate librea, jarrera irekia, parte hartu nahia, udal esperientziako esparruetan laguntza emateko. Era berean, talde eta eragileen proiektuak bateratzeko aukera ematen du udalerrri senidetuen arteko arlo berean: elkarteak, taldeak, musika taldeak eta abar.

Europako Batasuneko helburuekin bat eginik

HURBILTZEN programa bat dator (eta irmotasunez laguntzen du) Europako Batasunaren apustu sendoarekin, herri eta herritar europarren batasunean aurrera egiteko, baina aldi berean bakoitzaren ezaugarriak aintzat hartuta.



Ikuspegi horrek aniztasuna hartzen du kontuan, elkar ezagutu beharra, harremanak egin beharra mugak kentzearen bidez eta elkarrekiko elkartasun eta ezagutza loturak eraikitzearen bidez, are gehiago elkarren arteko nortasuna duten lurralde eta Erakundeen artean.

HURBILTZEN senidetze programa osatzen duten euskal udalerriek ongi erakusten dute zein den XXI. mendeko euskal errealitatea. Erakunde horien balore batzuk Europako herritarren balore berberak dira, esaterako: demokrazia, bakea, askatasuna eta giza eskubideak. Beste balore batzuk, ordea, bereziak dira, herri garen aldetik ditugun ezaugarriak: hizkuntza, euskara, kultura, ondarea, bai eta ekonomia eta estrategia interesak ere.

Helburuak. Senidetze programa handi handia abiaraztea, Euskal Herriko ahalik eta udalerrri eta herritar gehienek parte har dezaten, betiere ezagutza, harremana, ideien, programen eta produktuen trukaketa sustatzeko. Udal erakundeen eta udalerrri bakoitzeko ekonomia, gizarte eta kultur eragileen arteko elkarlan eta lankidetzak proiektuak egitea.

Protagonistak. Herritarrak dira ekimen honetako protagonistak, eguneroko bizitzan egiten dituzten jarduketan bidez, beren lanbide, kultur, ekonomia edo aisia jardueraren bidez, bai banaka bai taldetan antolatutako (enpresa, elkartea, e.a.).

Halaber, ekimen honetan barne dago Euskal Herritik kanpoko beste hiri/udalerririkiko senidetzea, batez ere euskal diasporaren kokalekuak dauden haietan, edota historian, kulturen edo ekonomian harreman nabarmenak dauden haiekin.

Partehartzaileak. Ahal den neurrian helburua da senidetze guztiek Iparraldeko udalerrri bat barne hartzea, beste bat Nafarroakoa eta beste bat Euskal Autonomia Elkartekoa.

Senidetzeak Europako Batzordeko programetan. Senidetzeei Laguntzeko Europako Programa Europa barneko senidetzeak sustatzera bideratua dago. Batzordeak hainbat ekitaldi babesten ditu senidetzeen baitan: herritarren arteko topaketak, senidetzea sustatzeko agerpen bereziak eta ekintzak eta, azkenik, hobekuntza neurriak ere senidetzeen arduradunentzat. Programak lehentasuna ematen die 5.000 bizilaguneko beheko udalerriei, bai eta proiektu berritzaileei ere. Epea etengabe irekia dago, baina eskabidea bidali beharko da gutxienez hiru hilabete lehenago ekitaldia egin aurretik.



UDALBIDE
Elkarlan
Elkartea

UDALBIDE Elkarlan Elkartek Europako Batzordeko programen baitako udalerrri parte hartzaileen arteko senidetzeak kudeatuko ditu.

2.- Herritarren arteko lankidetzak eta harremanak sustatzea.

Herritarren artean: **UDALBIDE Elkarlan Elkartean** programa guztiek bi ezaugarri izanen dituzte: batetik, harremanetarako hizkuntza euskara izanen da eta, bestetik, lurralde artekotasuna. Taldeak euskal lurralde guztietako pertsonen bidez osatuko dira. Programa horien helburua bikoitza izanen da: batetik, euskaldunen arteko harremanak eta ezagutza eta, bestetik, euskaraz mintzatzeko moduak bateratzea, euskalkien esperimendua. Horrez gain, balore batzuk zabalduko dira, gure gazteak berdintasunean, errespetuan eta justizia sozialean hezteko, bai eta kontzientzia historikoaren garapena ere.

Euskal gazteen arteko lan programak barne hartuko ditu:

- Asteburuko kanpaldiak eta udalekuak.
- AUZOLANDEGIAK
- Lurraldeetako gazteen arteko TRUKAKETAK
- ASTEBURURAKO ANIMAZIO PROGRAMAK...

UDALBIDE Elkarlan Elkartean programak horiek euskal gazteen arteko ezagutza eta harremanetarako lanabesa dira, egokiak hizkuntza trukaketarako eta elkarren arteko ez-ezagutzaren mugak gainditzeko bidea. Hauek bezalako baloreak garatu eta sustatuko dira: bakea, pentsamendu askatasuna, euskal kulturaren partaide izatearen sentimendua, Euskal Herriko kultur ondarearen ezagutzan sakontzea, erantzukizuna, euskal nortasuna eta kultura, besteenganako elkartasuna, bakea giza justiziaren adierazpen gisa, eleaniztasuna, kontzientzia historikoa, sormena, besteenganako errespetua eta naturarekiko harreman orekatua.

Lurralde guztietako aisialdiko monitore gazteentzat prestakuntza lana egingen da eta haiek, aldi berean, haurrak prestatuko dituzte, beraiek antolatutako jardueren bidez.



Euskal lurralde guztietako hainbat adinetako gazteen arteko harreman sarea ezartzera bideratutako proiektua eginen dugu, elkarren arteko ezagutza sakontzeko, bai eta UDALBIDE Elkarlan Elkartearen jarduketara-esparruko jarduerara guztiak bultzatzeko ere.

D) Berezko nortasuna duen herrialde bakarra ikustera bideratutako ekimenak sustatzea: PAYS BASQUE, EUSKAL HERRIA, PAIS VASCO

- 1.- **Kirol alderdia:** Euskal selekzioak sustatzea, bai eta aurrera egiteko zailtasunak dituzten euskal kirolak ere.
- 2.- **Alderdi politikoa:** Euskal lurraldeetako erakundeen, taldeen eta ordezkarien arteko gogoeta eta lan foroak sustatzea.

UDALBILTZA hautetsien topagune irekia, anitza eta baketsua da, bilera-eskubide funtsezkoak babesturik; gogoetarako, ikerketarako eta jarrera hartzeko topagunea da euskal lurralde guztietako herritarrak ukitzen dituzten kontu politikoei buruz.

UDALBIDE Elkarlan Elkarteak lan eginen du, talde politiko guztietako hautetsiek topagune politiko honetan ekimen askatasunez parte har dezaten.

- 3.- **Kultur alderdia:** PAYS BASQUE, EUSKAL HERRIA, PAIS VASCO markako ondarea sustatzeko ekimenak kulturaren, folklorea, turismoan, betiere kultur alderdi bateratuak elkarrekin sustatzeko.
- 4.- **Ekonomia eta gizarte alderdia:** bere zerbitzu eskaintza duen herrialde bakarra, elkarren arteko oinarritik abiatu eta arlo horietan ditugun zerbitzuak elkarrekin sustatzeko aukera izan dezagun.



HONDARREKO

Erabat bat eginik aurrekarietan adierazitako filosofiarekin eta helburuekin, **UDALBIDE Elkarlan Elkarteak** 2005erako duen Proiektuak, orokorrean, esparru hauetara bideratuko du bere jarduera: HIZKUNTZA, KULTURA, KIROLA, INGURUMENA, LURRALDEAREN ANTOLAMENDUA, EKONOMIA ETA GIZARTE GARAPENA. Hainbat ikuspegitatik landuko du esparru horietako bakoitza, funtsean beharra, ahultasuna, utzikeria, arretariki eza eta beste egoera batzuei aurre egiteko, lurralde osoan ahalik eta garapen orekatuena lortzeko asmoz, zalantzarik gabe horrek euskal herritar guztien bizi-kalitatea hobetuko duelakoan.

Beharrak nolako, jarduerak halako. Beraz, era askotako jarduerak eginen dira: azterlanak, kultur eta kirol ekitaldiak antolatzea, senidetze proposamenak eta senidetze kudeaketa, **UDALBIDE Elkarlan Elkartearen** jarduketa esparruko proiektuentzako diru laguntzak, azpiegiturak sustatzea, bai eta helburuak betetzeko egokiak diren jarduera oro ere.

Halaber, eta erabat bat eginik aurrekarietan aipatutako Batzordearen Irizpenean eta Lege Organikoan bilduta dagoen filosofiarekin, bai eta Elkartearen helburuekin beraiekin ere, ahal den neurrian jarduerak eginen dira tokian tokiko gizarte eragileekin elkarlanean, betiere **UDALBIDE Elkarlan Elkartearen** jarraibideekin bat eta hala bada, eragileekin lankidetzarako hitzarmena sinatuko da.

Zehaztasun handitan sartu gabe, esparruz esparru aurreikusita dauden jarduera batzuk adieraziko ditugu:

EUSKARA, KULTURA ETA KIROLA

- Proposamenak, azterlanak, zabalkunde kanpainak egitea.
- Hezkuntza proiektuen eta programen jarraipenerako laguntza.
- Euskarazko argitalpenak sustatu eta argitara ematea.
- Euskarazko komunikabideen laguntza eta sustapena.
- Euskara irakasteko bitartekoak paratzea.
- Euskarazko ikastetxeak eraiki, mantendu eta hobetzea.
- Orokorrean, euskara sustatzea.
- Hezitzaileentzako eta ikasleentzako trukaketak sustatzea. (hezkuntza proiektuak, eskolaz kanpoko ekintzak, astialdia, kanpaldiak eta abar truketzea)
- Kultur eta kirol ekitaldiak orokorrean sustatzea, euskarak funtsezko tokia badu.
- Euskal gairi buruzko azterlan historikoak sustatzea



UDALBIDE
Elkarlan
Elkartea

Lurraldeen arteko lankidetzaz, LURRALDEAREN ANTOLAMENDUARI, INGURUMENARI eta EKONOMIA NAHIZ GIZARTE GARAPENARI buruz gogoeta egiteko.

Tokian tokiko jarduera zehatzak egiteaz gain, Udalen eta haietan lan egiten duten gizarte eragileen arteko harremana sustatu ere egin behar da, elkarlanerako, trukaketarako eta proiektu jakin batzuk elkarrekin gauzatzeko, eremu horretan ahalik eta garapenik orekatuena lortzeko, bereziki behar handiena dagoen esparruetan, dela lurraldearen antolamendua, dela ingurumena, dela ekonomia garapena, dela gizarte ongizatea.

Aurrekontuan barne daude Elkartearen funtzionamenduari dagozkion gastuak. Gastu horiek proportzionalki aplikatuko zaizkio hala aurrekontuari nola aurrekontu hori garatzeko egiten diren jarduera guztien likidazioari eta, ondorio guztietarako, huraxe betearazteko behar diren gastuak izanen dira.



ERANSKINAK / ANEXOS

- 1.- Euromosaic
- 2.- Carta Europea de la Lenguas Regionales y Minoritarias
- 3.- Declaración Universal de la Unesco sobre la diversidad cultural
- 4.- III encuesta sociolingüística Gobierno Vasco
- 5.- Carta Europea sobre la utilización de las lenguas minoritarias en la vida económica y social